

# GARAI A BAINO LEHEN JAIOTAKOAK

(210')

## Helburu orokorra

Norberak menperatzen duen gai bati buruzko euskarazko testu bat ulertzean izan daitezkeen zailtasunak gainditzeko hainbat estrategia erabiltzea: norberaren ezagutza aktibatzea edota testuinguruaz baliatzea.

## Helburu espezifikoak

- Aurreikuspenak egitea.
- Hitz batzuen esanahia testuingurutik inferitzea
- Elkarrizketa bateko galderak eta erantzunak ordenatzea.

## Zertan den

Nork bere hizkuntzan irakurtzen duenean, ez ditu testu-hitz guztiak hitzez hitz ulertu behar izaten, testua ulertzeko. Are gutxiago, testu hori berak menperatzen duen gai bati buruzkoa denean. Menperatzen ez den hizkuntza batean ari garenean, ordea, oso urduri jarri ohi gara, hitzen bat ulertzen ez dugunean, irakurketa eteteraino ere bai batzuetan. Ataza honetan gai horiek jorratuko ditugu. Lehenengo jardueran ahozko testu batetik ateratako pasarteak entzungo ditu ikasleak, eta, horietan oinarrituta, ondoren datorrena aurrerako, gaiak berak dakiena aktibatu beharko du. Ondoren, berriz, testu idatzia oinarri, ulertzen ez dituzten hitz garrantzitsuen esanahia testuingurutik ateratzen trebatuko dira. Azkenik, gaiarekin lotutako elkarrizketa bat irakurriko dute, eta erantzunak ordenan jarri beharko dituzte.

## Prozedura

# 1

## Neonatologia

### Atazaurrea

- Ikasleek Neonatologiaren kategoriak dituzte euren liburuan. Irakasleek kategoria horiek definitu behar dituzte. (5')

#### Ikaslearen liburua

#### Neonatologiaren kategoriak

Amaren sabelean eman duten denboraren arabera sailkatzen ditu Neonatologiak umeak. Hona EGUNKARIAri Luis Paisan sendagileak egindako sailkapena:

**Haur heldugabeak:**

**Garaia baino lehen jaiotakoak:**

**Garaian jaiotzen direnak:**

**Garaia baino beranduago jaiotzen direnak:**

- Definizioak elkarri aurkeztu ostean, eman ikasleei jatorrizko artikuluko zatia (I. eranskina), beraien definizioak jatorrizkoarekin aldera ditzaten. (5')

### Ataza: aurreikuspenak

- Ikasleek **1. bideo-pasarte**<sup>1</sup> ikusiko dute. Bertan pisu gutxiko jaioberrien inguruan egindako sinposio baten berri ematen da. Bideo-pasarte horretan zati mutuak daude. Irakasleak bideoa jarri eta pasarte mutu bakoitzaren aurretik bideoa gelditu egin behar du, ikasleek talde txikitara jarraian bideoan zer esango duten eztabaidatu eta adostu dezaten. Horrela bost pasarte mutuak antzeman arte. (25')
- Talde bakoitzak pasarte mutu bakoitzerako egin duen aukeraren berri emango die besteei. (10')

### Feedbacka: esanahia

- Erreportajea osorik ikusiko dute (**2. bideo-pasarte**) eta egindako aurreikuspenak egiaztatuko dituzte. (5')

#### Zuzenketa-orria

1. baina beti hartu behar da kontuan ume horrek hainbat arazo izan ditzakeela bizitzan
2. 24-25 aste beteta posible da jaioberri bat bizitzea
3. pisu gutxiko jaioberri bat aurrera ateratzeko medikuen ahalegina noraino iritsi behar den erabakitzeko
4. amen adina gero eta handiagoa delako eta, bestetik, lagundutako ernalketaren bitartez, gero eta jaiotza anitz gehiago dagoelako.
5. amaren uteroaren ezaugarri berdintsuak eskaintzen dizkio jaioberriari umeak bi kilo hartu arte.

### Atazaostea

- Entzun berri dugun albistean arazo zientifikoez gain, etikoak ere aipatzen dituzte. Ikasleei esango diegu aipatzeko zein izan daitezkeen, eta horien gainean jardungo dugu labor-labor modu informalean denon artean. (10')

## 2

### Uteroaren epela eraikitzen

#### Atazaurrea

- Liburuan bi argazki dituzte eta argazki-oinetan tresna horien izenak: inkubagailuak eta irradiazio-beroa ematen duten sehaskak. Ondoan gailu horien definizioa idatzi behar dute binaka. (10')
- Bikote bakoitzak bere definizioak irakurriko ditu eta gehien gustatzen zaiena aukeratu behar dute. (10')
- Azkenik, argazki-oinak osorik emango dizkiegu egunkariko definizioak irakur ditzaten (II. eranskina). (5')

#### Ataza: hitz batzuen esanahia testuingurutik inferitu

- Ikasleak binaka jarriko dira. Hainbat hitz dituzte ikaslearen liburuko eranskinean. Irakasleak agindutako fitxa (A ala B) hautatu eta gaztelaniazko ordaina jarri behar dute, lehendabizi, banaka. Ordainik ez badakite, utz dezatela hutsik. (5')
- Eman ikasleei dagokien artikuluzatua (III. eranskina). Binaka jarrita (A eta B ikasleak) zati bana irakurriko dute. Zati bakoitzean hainbat hitz dituzte letra lodiz markatuta, arestian gaztelaniazko ordaina jartzen saiatu direnak, hain

<sup>1</sup>Pisu gutxiko jaioberriak (db-3022). ETB, Albistegia. 2002-10-14.

zuzen ere. Testuinguruari erreparatuta, batetik, ordain egokia eman duten egiaztatu behar dute, eta, bestetik, ordainik eman gabe utzi dituztenena ateratzen saiatu behar dute. (10')

### Feedbacka

- Bikotekideak letra lodiz dauden termino horien gaztelaniazko ordainak ditu zerrenda batean, baina ez bikotekidearen ordena berean. Nork bere zerrendako hitzen esanahia azaldu behar dio bikotekideari euskaraz, eta besteak gaztelaniazko zeinen ordaina den igarri eta haren ondoan jarri behar du euskarazko hitza. (20')
- Zalantzak argitzeko, bien artean irakurriko dute artikulua osorik. Zalantzarik geratuz gero, gelako gainerako ikaskideei galde diezaiekete. (15')

### Zuzenketa-orria

#### A FITXA:

1. *Sabel: abdomen, vientre*
2. *Garatu: desarrollar*
3. *Garaia baino lehen: antes de tiempo, pretérmino*
4. *Ernalketa: fecundación*
5. *Haurdunaldi anizkoitz: embarazo múltiple*
6. *Ugaldu: aumentar*
7. *Burutu: llegar a término*
8. *Erditzearen une: momento del parto*
9. *Sabeletik at: fuera del vientre, extraabdominal*
10. *Eraiki: construir*
11. *Zainketa bereziak: cuidados especiales*
12. *Osatu: formarse*
13. *Garun: cerebro*
14. *Birika: pulmón*

#### B FITXA:

1. *Erditu: dar a luz*
2. *Jazo: suceder*
3. *Etsi: rendirse*
4. *Arazorik ohikoenak: problemas más habituales*
5. *Umetokiaren ordezkoa: sustituto del útero*
6. *Hezetasuna: humedad*
7. *Gailu: aparato*
8. *Adimentsu: inteligente*
9. *Premia: necesidad*
10. *Beren kabuz: por sí mismos*
11. *Elikatu: alimentarse*
12. *Esne goiztiarra: leche prematura*
13. *Garaia baino lehen: antes de tiempo, pretérmino*
14. *Heldu: madurar*
15. *Sustatu: promover*

### Gramatika eta diskurtsoa: sintaxia

- Artikuluko hainbat esaldi bitan zatituta dituzte. Artikuluko testuingurua gogoan, esaldiak partikula egokien bidez lotu behar dituzte. Horretarako, esan artikulua ez baliatzeko. Lehen ahalegina banaka egingo dute. (15')
- Talde txikitari jarri eta egindako lana alderatu eta osatu egingo dute. (10')
- Azkenik, artikulua hartu eta zuzendu egingo dute. (5')

### Zuzenketa-orria

1. Prozesu liluragarria izaten da, zelula-multzo bat baino ez dena haur txiki bihurtzen baita.
2. Era horretako umeak gero eta ugariagoak dira, *in vitro* ernalketa tekniken ondorioz haurdunaldi anizkoitzak ugaltu egin baitira.
3. Pisu gutxirekin jaiotako umeak izaten dira normalean.
4. Biak ondo garatuta badaude, umearen pisua txikia bada ere, izaten da gerorako esperantzarik
5. Orain hiru aste, esaterako, Florentziako Careggi Ospitaletik (Italia) 285 gramorekin jaio zen neska bat aurkeztu zuten.
6. Erditzea otsailean jazo zela azaldu zuten
7. Lanari kezka handiz ekin bazioten ere neska txikia egun ondo dago.
8. Tentsio handiko unerik ere izaten dela ezin dute ukatu.
9. Alboan, berriz, umea nahi bezala besarkatu ezin duten gurasoak egoten dira.
10. 1.800-2.000 gramo inguru dituztenean ateratzen dituzte umeak gailuetatik.
11. Umea bularra hartzeko gai izan orduko, berriz, ama-umeen arteko harremana gogoz sustatzen dute.

#### Atazaostea (10')

- Ikasleei eskatuko diegu aipatzeko euren bizitza profesionalean ezagutu dituzten muturreko kasuak: pisu gutxirekin jaiotako haurrak, pisu handiarekin jaiotakoak, zein arazori egin behar izan zieten aurre eta batean zein bestean erabili behar izan zituzten artatze edo zainketa bereziak zeintzuk izan ziren.

## 3

### Ikerketa: jaioberriak eta adimena

#### Atazaurrea

- Ikerketa zientifiko baten berri izango dute ikasleek. Entzungo duten testuaren transkripzioa dute beren liburuan, baina bertako bost esaldi testutik kanpora atera ditugu. Hutsune bakoitzean dagokion esaldia jarri behar dute. (10')
- **3. bideo-pasartea**<sup>2</sup> ikusi eta zuzendu egingo dute. Ondoren, ikerketaren emaitzaz hitz egingo dute labur-labur. (5')

### Zuzenketa-orria

Jaiotzean zenbat eta pisu handiagoa izan, heldutasunera heltzean jaioberriak adimentsuagoak izango dira. Ondorio bitxi horretara iritsi da Britainia Handiko ikerlari-talde bat. Hauen ustez ( **3** ) ***pisu handikoen burmuina ohiko pisua dutenena baino handiagoa izaten da eta***, era berean, ( **5** ) ***burmuineko konexioen kopurua ere handiagoa***. Dena den, ( **2** ) ***ikerlariak gurasoak lasaitzeko deia egin dute, haurrek jaiotzean duten*** pisuaz gain, ( **4** ) ***badelako adimena garatzeko edo ez garatzeko beste hainbat faktore***, hala nola, ( **1** ) ***hezkontza, etxeko giroa, erosotasuna eta abar***.

#### Ataza: galderak eta erantzunak ordenatu

- Ikaslearen liburuan elkarrizketa bat<sup>3</sup> dute, baina erantzunak lekuz kanpo dituzte. Ikasleek ordenatu egin behar dituzte. (10')

<sup>2</sup> *Jaioberrien pisua* (db-1406). ETB, Teknopolis. 2001-02-17.

<sup>3</sup> *Uteroaren epela erakitzen*. Euskaldunon Egunkaria. 2002-06-16, 38. or.

- Jatorrizko elkarrizketa emango diegu zuzentzeko (IV. eranskina). (5')
- Atazaren hasieran entzundako albistearen eta aditu honek emandako iritziaren artean badago kontraesan bat. Galdetu zein den eta nork duen arrazoi. Hitz egin dezatela horretaz. (5')

### Zuzenketa-orria

**Kontraesana:**

Geroan ume horiek osasun-arazorik izango duten ala ez.

# TRANSKRIPZIOAK

## 1. Bideo-pasartea<sup>4</sup> (Bideoa 00:34:05 - 00:35:33)

Iraupena: 1' 28"

### Pisu gutxiko jaioberriak

AURKEZLEA: Pisu gutxiko jaioberriak aurrera ateratzeko ahalegin terapeutikoez, ahalegin medikoez noraino iritsi behar duten eztabaidatzen dabilta 200 aditu Bilbon egiten ari diren sinposioan. Gaur egun 400 gramo inguru eduki behar ditu, gutxienez, jaioberriak aurrera ateratzeko aukera izango badu, (1) \_\_\_\_\_.

ESATARIA: Haurdunaldiak 40 aste irauten baditu, (2) \_\_\_\_\_, baina zaila izaten da etorkizunari begira arazoren bat ez izatea, Gurutzetako Jaioberrien Unitatearen buruaren esanetan. Adolfo Vals y Solerren ustez, senitartekoez dute azken hitza (3) \_\_\_\_\_, baina medikuek eurek emandako iritzia oinarritzkoa izaten da.

BERRIEMAILEA: Orena umeak haurdunaldia beteta jaiotzea litzateke. Baina momentuz ezinezkoa da helburu hau lortzea, alde batetik, (4) \_\_\_\_\_.

ESATARIA: Egun jaioberrien % 1,5ek kilo eta erdi baino gutxiago pisatzen dute. Horrelako kasuetan berebiziko garrantzia du jaioberrien unitateak: (5) \_\_\_\_\_.

## 2. Bideo-pasartea<sup>5</sup> (Bideoa 00:35:38 - 00:37:06)

Iraupena: 1' 28"

### Pisu gutxiko jaioberriak

AURKEZLEA: Pisu gutxiko jaioberriak aurrera ateratzeko ahalegin terapeutikoez, ahalegin medikoez noraino iritsi behar duten eztabaidatzen dabilta 200 aditu Bilbon egiten ari diren sinposioan. Gaur egun 400 gramo inguru eduki behar ditu, gutxienez, jaioberriak aurrera ateratzeko aukera izango badu, baina beti hartu behar da kontuan ume horrek hainbat arazo izan ditzakeela bizitzan. Hor dago gakoa, baita eztabaida etikoa ere.

ESATARIA: Haurdunaldiak 40 aste irauten baditu, 24-25 aste beteta posible da jaioberri bat bizitzea, baina zaila izaten da etorkizunari begira arazoren bat ez izatea, Gurutzetako Jaioberrien Unitatearen buruaren esanetan. Adolfo Vals y Solerren ustez, senitartekoez dute azken hitza pisu gutxiko jaioberri bat aurrera ateratzeko medikuen ahalegina noraino iritsi behar den erabakitzeke, baina medikuek eurek emandako iritzia oinarritzkoa izaten da.

BERRIEMAILEA: Orena umeak haurdunaldia beteta jaiotzea litzateke. Baina momentuz ezinezkoa da helburu hau lortzea, alde batetik, amen adina gero eta

<sup>4</sup> Pisu gutxiko jaioberriak (db-3022). ETB, Albistegia. 2002-10-14.

<sup>5</sup> Pisu gutxiko jaioberriak (db-3022). ETB, Albistegia. 2002-10-14.

handiagoa delako eta, bestetik, ernalketa lagunduaren bitartez gero eta jaiotza anitz gehiago dagoelako.

ESATARIA: Egun jaioberrien % 1,5ek kilo eta erdi baino gutxiago pisatzen dute. Horrelako kasuetan berebiziko garrantzia du jaioberrien unitateak: amaren uteroaren ezaugarri berdintsuak eskaintzen dizkio jaioberriari umeak bi kilo hartu arte.

### **3. Bideo-pasarte<sup>6</sup> (Bideoa 00:37:11 - 00:37:54)**

**Iraupena: 0' 42''**

#### **Jaioberrien pisua**

Jaiotzean zenbat eta pisu handiagoa izan, heldutasunera heltzean, jaioberriak adimentsuagoak izango dira. Ondorio bitxi horretara iritsi da Britainia Handiko ikerlari-talde bat. Hauen ustez pisu handikoen burmuina ohiko pisua dutenena baino handiagoa izaten da eta, era berean, burmuineko konexioen kopurua ere handiagoa izaten da. Dena den, ikerlariak gurasoak lasaitzeko deia egin dute, haurrek jaiotzean duten pisuaz gain, badelako adimena garatzeko edo ez garatzeko beste hainbat faktore, hala nola, hezkuntza, etxeko giroa, erosotasuna eta abar.

---

<sup>6</sup> *Jaioberrien pisua* (db-1406). ETB, Teknopolis. 2001-02-17.

## Neonatologiaren kategoriak<sup>7</sup>

**Amaren sabelean eman duten denboraren arabera sailkatzen ditu Neonatologiak umeak. Hona EGUNKARI Ari Luis Paisan sendagileak egindako sailkapena:**

**Haur heldugabeak:**

Haurdunaldiaren 24-26 aste bete gabe jaiotzen diren haurrak dira. Abortuak izaten dira normalean; osatzeko egoten dira, eta ezin izaten da deus egin beren geroaren alde.

**Garaia baino lehen jaiotakoak:**

Haurdunaldiaren 24-37. asteetan jaiotako umeak izaten dira.

**Garaian jaiotzen direnak:**

Haurdunaldiaren 37-42. asteetan jaiotzen direnak izaten dira, ohikoenak.

**Garaia baino beranduago**

**jaiotzen direnak:** Haurdunaldiaren 42. astea igaro ostean jaiotako umeak dira.

---

<sup>7</sup> *Uteroaren epela eraikitzen*. Euskaldunon Egunkaria. 2002-06-16, 38. or



**Inkubagailuak.** Kutxa-itxurako ontzi aseptikoak dira, gardenak. Tenperatura, hezetasuna eta oxigenoa kontrolpean daude.



**Irradiazio-beroa ematen duten sehaskak.** Inkubagailuen funtzio bera dute, baina irekiak dira. Koltxoi termiko batek ematen dio behetik umeari beroa; goitik, aire beroak.

## Uteroaren epela eraikitzen<sup>8</sup>

### A fitxa

Batez beste 40 aste inguru irauten ditu haurdunaldiak. Prozesu liluragarria izaten da, zelula-multzo bat baino ez dena haur txiki bihurtzen baita. Egunez egun aldaketa handiak egiten ditu umeak amaren **sabelean**, eta han aurkitzen du **garatzeko** behar duen guztia. Oparo. Zenbaitetan, ordea, **garaia baino lehen** heltzen dira umeak mundura. Era horretako umeak gero eta ugariagoak dira, *in vitro* **ernalketa** tekniken ondorioz, **haurdunaldi anizkoitzak ugaltu** egin baitira, eta maiz prozesua behar bezala **burutu** aurretik iristen baita horrelakoetan **erditzearen unea**. Neonatologia deritzo ume horietaz arduratzen den Medikuntzaren adarrari. Nolabait ere, amaren **sabeletik at**, erietxean, utero artifiziala **eraikitzen** du heldu berriarentzat. Haurdunaldiaren 24 edo 26-37. asteetan zehar jaiotako haurrak izaten dira **zainketa berezi** horiek behar izaten dituztenak. Pisu gutxirekin jaiotako umeak izaten dira normalean. Nolanahi ere, sendagileek duten pisuari baino garrantzi handiagoa ematen diote nola **osatuta** dauden ikusteari. Organo bik kezkatzen dituzte batez ere, **garunak** eta **birikek**. Biak ondo garatuta badaude, umearen pisua txikia bada ere, izaten da gerorako esperantzarik.

- **Madurar**
- **Aparato**
- **Humedad**
- **Sustituto del útero**
- **Dar a luz**
- **Promover**
- **Suceder**
- **Antes de tiempo, pretérmino**
- **Inteligente**
- **Necesidad**
- **Alimentarse**
- **Leche prematura**
- **Por sí mismos**
- **Rendirse**
- **Problemas más habituales**

<sup>8</sup> *Uteroaren epela eraikitzen*. Euskaldunon Egunkaria. 2002-06-16, 38. or.

## B fitxa

Neonatologiak aurrera urrats handiak egin ditu azkenaldian. Kasu harrigarriak daude. Orain hiru aste, esaterako, Florentziako Careggi Ospitaletik (Italia) 285 gramorekin jaio zen neska bat aurkeztu zuten. **Erditzea** otsailean **jazo** zela azaldu zuten, haurdunaldiaren 27. astean, eta lanari kezka handiz ekin bazioten ere neska txikia egun ondo dagoela. Pozarren azaldu ziren mediku eta erizainak, neska txikia beren "perla" dela esanez.

Ez da gutxiagorako. EGUNKARIAK Donostia Ospitaleko Neonatologia Saila bisitatu du. Leku berezia da, ume txikiz betea. "Eta umeei maitasun berezia hartzen zaie", diote erizainek, irribarretsu.

### Egoera zailak

Tentsio handiko unerik ere izaten dela ezin dute ukatu. 500 gramo pasatxoko umeak bizi nahi eta ezinean ikusten dituzte sarritan, bizitzen hasi orduko **etsitzeko** bidean. Alboan, berriz, umea nahi bezala besarkatu ezin duten gurasoak egoten dira.

Hipotermia eta deshidratazioa izaten dira umeon **artean arazorik ohikoenak**; alegia gorputzaren tenperatura ohikoa baino baxuagoa izaten da, eta ura galtzen dute. Horregatik, **umetokiaren ordezkoa** bilatu behar zaie. Mota bitakoak izaten dira: inkubagailuak eta irradiazio-beroa ematen duten sehaskak. Itxiak dira lehenak, irekiak bigarrenak.

Biek beroa, **hezetasuna** eta oxigenoa ematen dizkiete umeei, behar adina. Egun erabiltzen diren **gailuek**, **adimentsuak** dirudite. Ume bakoitzaren **premiak** neurtu eta horren arabera jokatzeko dute. 1.800-2.000 gramo inguru dituztenean ateratzen dituzte umeak gailuetatik. Ondo bidean **beren kabuz** gorputzaren tenperatura kontrolatzeko gai izan behar dute ordurako.

### Amaren esne goiztiarra

Ahal dela amaren esnearekin **elikatzen** dituzte umeak. **Esne goiztiarra** izaten da **garaia baino lehen** jaiotako umeen amen bularretakoa, ordea, oraindik behar bezala **heldu** gabea. Horregatik, proteina batzuk erantsi behar izaten dizkiote. Umea bularra hartzeko gai izan orduko, berriz, ama-umeen arteko harremana gogoz **sustatzen** dute. Umeak bularra hartu behar duen bakoitzeko bisitatzen du amak umea.

Esnea hartzeko unea ez da izaten umeen eta gurasoen arteko harreman bakarra; bisita-orduei garrantzi berezia ematen diete Neonatologia sailetan, eta behar denean psikologoaren laguntza ere izaten dute gurasoek. Inkubagailuko laztanak gozatzeko.

- **Cuidados especiales**
- **Pulmón**
- **Cerebro**
- **Construir**
- **Fecundación**
- **Embarazo múltiple**
- **Aumentar**
- **Llegar a término**
- **Momento del parto**
- **Fuera del vientre, extraabdominal**
- **Desarrollar**
- **Antes de tiempo, pretérmino**
- **Formarse**
- **Abdomen, vientre**

**Luis Paisan**

**DONOSTIAKO OSPITALEKO NEONATOLOGIA SAILEKO BURUA**

**“Jaiotakoan 400 gramo diren umeak aurrera atera daitezke”<sup>9</sup>**

Luis Paisan Donostia Ospitaleko Neonatologia Saileko arduraduna da. Garaia baino lehen jaiotako ume askoren geroa egia bihurtzea lortu du urte askotako jardunean. Lantokian bertan egin dio harrera EGUNKARIARI.

v **Aurrerako urrats handiak egin dira garaia baino lehen jaiotzen diren umeei zuzendutako zainketetan, ezta?**

Bai, hala da. Egun lortzen direnak imajinatu ere ezin ziren egin iraganean. Orain dela urte batzuk 500 gramo baino gutxiago zuen umerik ezin izaten zen aurrera atera, hortxe ezartzen genuen muga. Gaur egun 400 gramokoak ere atera daitezke.

v **Geroan atera ahal izango dira aurrera oraindik ere pisu txikiagoa duten haurrak? Zer deritzozu...**

Litekeena da. Baina zaila da. Haurdunaldiaren 22-23. asteetatik aurrera izaten ditu fetuak bizirik aurrera egiteko ezaugarriak garatuta, denbora hori behar da, izadiaren legea da... Egia da genetikari buruz-eta asko hitz egiten dela, eta akaso geroan alde horretatik etorriko dira aurrerakuntza handiak, baina, ezin uka: oraindik ere hori guztia lauso artean dago.

v **Eta hain pisu gutxirekin jaiotako umei geratzen zaie osasun-arazoren bat ondorio gisa?**

Badaezpada ere, 6-7 urte betetzen dituzten bitartean, gertuko jarraipena egiten diegu neska-mutil horiei. Nolanahi ere, normalean, oker handirik ez bada, bi urte betetzen dituztenerako ume normalak izaten dira...

v **Eta inkubagailutik irten eta lehen bi urteak bete bitartean behar izaten dute zainketa berezirik?**

Ez. Behin jada sendatze-agiria jaso ostean, oker handirik ez bada, ume horiek ez dute zainketa handirik behar. Paseatzera atera behar dira, noski, eta ondo eman behar zaie jaten. Besterik ez dute behar, ezta jaiotakoan 800 gramo baino ez baziren ere.

v **Nolanahi ere, badaezpadako neurri batzuk hartzen dituzue normalean, ez da hala?**

Bai, jakina. Maitasun berezia hartzen diegu ume horiei, eta ondo aztertzen ditugu. Ikusmena, entzumena, garunaren funtzionamendua... Ondo begiratzen diegu dena. Txerto berezi bat ere bada, soilik haur horiei ematen dieguna... Horren bidez, katarroak saihestea lortzen dugu, arazo erantsirik ez izateko. Hein batean, ardura handiz tratatzen ditugu neska-mutiko horiek, urte eta erdi-bi urte betetzen dituzten arte, behintzat.

v **Garaia baino lehen jaiotako umeen artean ba al da ezberdintasunik neska eta mutilen artean?**

Bai, bada bat nabarmena. Mutikoak maizago hiltzen dira. Bitxia da.

<sup>9</sup> *Uteroaren epela eraikitzen*. Euskaldunon Egunkaria. 2002-06-16, 38. or